

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Joan Mari Irigoien Aranberri*

*Donostia,  
Gipuzkoa  
(1948)*

Aurkibidea



## Biografia



Altzan jaio zen. Aita bertako medikua zen, Ramon Irigoien oiartzuarra. Ama, berriz, Elgoibarko baserri batekoa zen. Martillun tabernaren ondoan bizi ziren. Altzako eskola publikoan ibili zen 10 urtera arte, eta gero Sagrado Corazon ikastetxean, Donostian. Ingeniaritza ikasi bazuen ere, Venezuelan pare bat urte egin ostean irakasle eta itzultzaile lanetan jardun zuen. Baina literatura da bere pasioa: batez ere idazle gisa da ezaguna.

## Zintak

### DON-130

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-08-17
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Oruesagasti, Ainitze

### DON-131

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-08-17
- **Iraupena:** 28 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

## Pasarteak

### 1. Altzan etxeak eraikitzen hasi zirenekoa

- **Erref:** DON-130/003
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

#### Laburpena:

Martilun taberna ingurua nolakoa zen. Zazpi urte zituenean hasi ziren etxeak egiten Altzan. Larratxo auzoa. Zergatik den ekologista.

## 2. Larratxo erreka nolakoa zen

- **Erref:** DON-130/004
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:06:18. **Bukatu:** 00:08:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

### Laburpena:

Larratxo erreka. Arraintxoak zeuden, karramarroren bat. Hankak uretan sartzen ibiltzen zen, jolasean. Neskei begiratzea bekatua zen, eta ura izan zen bere lehen maitalea.

### Transkripzioa

- Larratxo erreka hori nolakoa zan?

- Zan txikiya, biño bertan zeuden eskailluak eta karramarroren bat edo beste baita; eta gero zeuden harriyak eta gero harremana urarekiko ta hori. Ni gogoratzen naiz ba nola kendu galtzerdiya, bueno, kendu zapatillak edo zapatak, kendu galtzerdiyak eta ur hotza zan larratxoko zea hoi. Eta nola sartzen nuen behatz lodiya eta gero atzera, berriro aurrera, berriro atzera, eta nabaritzen det ba halako jolasa. Halako jolasa urarekin. Bakizu gaiñera gure garaian neskei begiratzea pekatu mortala zala eta orduan ba begiratu ere ezin. Eta nik uste det, sinistuta nago, ba urak jokatu zuela neskaren paper hori. Uraren emetasunak, uraren gardentasunak eta nere idealizaziyoak eta horrela.

- Zure lehenengo maitalea orduan?

- Bai, ura, ura. oaindik e illobetako, nere illobetako batek oparitu zidan halako aulki eroso bat, komodoa, eta horrekin juten naiz askotan errekadun bazterretara eta hantxe exeri eta urari begira pasa ditzaket orduak. Hantxe e? Burua hustu edo utzi eta hantxe dago miraria, ura.

## 3. Ezkaluak etxeko bainu-ontzian

- **Erref:** DON-130/005
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:08:36. **Bukatu:** 00:10:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

### Laburpena:

<p>Ezkaluak harrapatzen. Etxeko bainu-ontzia akuario bihurtu zuen. Aitak bainatu behar zuenean, arraintxoak handik kentzen zituen, eta gero berriro jarri. Naturekin harreman estua zuen.</p>

### Transkripzioa

- Ta zu ezkailluak harrapatzen ta ez ziñan ibiltzen?

- Bai, bai, bai. Gero zorionez, ba gurasoak oso ulerberak izan nituen, eta

utzi zidaten halako batian ba etxeko baiñuontzia, etxeko baiñera akuarium bihurtzea, eta nik ekartzen nituen ezkaluak botailletan eta botatzen nituen, zea, baiñerara. Eta jartzen nituen harriyak, batez ere teillak, teillak, ba, bakizu, alde bat konkaboa dutela eta horrela jarri ezkeoz ba hantxe arkitzen dute gordelekua eskaluek. Eta gero aitak ba baiñatu behar zuen, edo dutxatu eta esaten zidan, "Juan mari! Ya dutxa", eta nik harrapatzen nituen eskaluek, bueno baztertzen nituen teillak, gero harrapatu eskaluek, lababora pasa; eta aitak bukatzen zuenean, "bukatu det!" eta berriro lababotik zeara. Bai.

- Ta gero?

- Gero [...] ez. Baserri giroa zen eta naturarekiko harreman estua, harreman estua.

#### 4. Kilkerren orfeoia etxeko sukaldean

- **Erref:** DON-130/006
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:10:21. **Bukatu:** 00:14:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek
- Natura » Fauna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

##### Laburpena:

<p>Aita herriko medikua zen, eta etxean zuen kontsulta. Kilkerak etxeko sukaldean. Orduko entretenimenduak: frontoi zaharrean pilotan, mendira... Kilkerak harrapatzeko hiru modu aipatzen ditu.</p>

##### Transkripzioa

- Gero beste kapitulo bat edo beste atal bat ziren kilkirrak. Gure etxea, barkatu, gure aita herriko medikua zen eta pasatzen zuen kontsulta etxian, ez zan oain bezela anbulatoiyuan, baizik eta etxian. Eta nik harrapatzen nituen ba kilkirrak, baiño... Eta etxera eramaten nituen, sukaldian jarri, eta hantxe askotan igual hogeitoto e? Hogeitoto bakoitza bere kilkirrarekin, ta "kri kri kri kri kri"; eta azkenian ba kontsultara zetozenak eskandalizatuta "hau zer da?" eta hantxe orfeoia, kilker-orfeoia. Holako kontuak.

- Eta zure aitak...

- Garai hartan ez zegoen gaur eguneko gaztek badabiltza makinatxoekin eta "play station" eta holako zeak eta garai hartan ez zegoen hori. Bakarrik zegoen frontoia, ez hau, oain berritu dutena, o berriya, ez frontoi berri hau, baizik eta zaharra, askoz politagoa zan; hau praktikoa noski, baiño zan pixka bat oteizaren eskulturaren antzeko ba hoietako bat. Eta hortxe ibiltzen giñan pelotan frontoian, eta hor ez zanean ba mendira edo zelaietan barrena kilkirrak edo erreketan eskaluek eta holako kontuak.

- Eta kilkirrak nola harrapatzen ziran?

- Ba beira, hiru metodo ezautzen ditut. Bata ba ziriya sartu, lazoa, eta pixka bat kili-kili batzuk eragin eta halako batian, asmatzen badezu, ba aterako da. Gero askoz traketsagoa erabiltzen genuen beste metodo bat eta hori zan pixa egitea zulora eta hantxe aterako zan ba ittoko ez bazan. Eta gero hau bai metodo infaliblea zan, eta zan badakizu batzutan nola txingurriek egiten dituzten beren kabiyak, lurrezko kabiyak, eta badira beltzak eta gorriyak. Beltzak ez, gorriyak hartu, hoitako mokor bat lur hartu, tartian zea txingurri gorriyak, eta hartu eta eramane zulora eta ate

aurrean jarri. Eta halako batian ba txingurri hoitako bat jungo da zulora, topatuko da kilkerrarekin, eingo diyo kosk eta ateratzen dia ziztuan. Metodo hori da...

- Eta zuri txingurri gorriyek ez zizuten kosk egiten?
- Ez, ez, ez, ez, eskuan ez. Eta gero han sartzen ez bazian, ba lasto batekin gidatu eta halako batian sartzen zian, eta bai.

## 5. Txolarrea, etxeko poza

- **Erref:** DON-130/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:14:27. **Bukatu:** 00:16:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

### Laburpena:

<p>Putzueta baserrian habi batetik bi txolarre hartu zituen, eta bat etxean hazi zuten. Etxeko poza zen. Bueltan etortzen zitzaion eskura. Aitaren burura ere joaten zen.</p>

### Transkripzioa

- Gero, gogoratzen naiz hoitako zea... egun batian, ba, jun nitzan Putzueta izeneko baserrira. Putzueta oain berrituta dao, biño basarri zaharra bazegoen. Eta harrapatu nituen kabi batetik bi patxori. Bi txolarre edo bi pareta txori. Eta eraman nituen etxea, eta bat hil egin zitzaigun, biñon bestia hazi egin genuen. Eta zan, joe! Gure etxeko poxa e! Egitan. Oso lotsagabia zan, eta ibiltzen zan... jartzen nuen hemen behatzean, eskuan, eta botatzen nuen eta berriro buelta.

- A, bai e?

- Bai, bai, bai. Eta goratzen naiz gure etxeko arraskan nola bañatzen zan aldian behin edo egunero. Eta hartik, handik beti juten zen zuzenean aitaren burura. Aita burusoilla zan e, eta beti eta... grazia eiten ziyon aitari. Eta ez zuen gaizkitzat hartzen. Eta holako kontuak.

## 6. Txoriak harrapatzen, ekologista egin aurretik

- **Erref:** DON-130/008
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:16:04. **Bukatu:** 00:18:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

### Laburpena:

Karabina batekin ibili zen txoriak harrapatzen, eta gero Oiartzunera joan zen batean tortoiloen pasea zenean. 14-15 urterekin konturatu zen nahiago zituela bizirik. Ekologista egin zen.

### Transkripzioa

- Txoriak harrapatzen ibiltzen ziñan bestela? Tiragomakin edo holako...

- Bueno, halako batian, tiragomakin gutxi. Karabina batekin ibilliko nintzan, ba, guk ez genuen karabinarik etxian, baiño besten batek utzia, eta atera nintzen ba ez dakit zenbat aldiz, ba hogei-hogeita hamar. Eta bai, garbitzen genituen txoriak, akabatzen genituen. Baiño gero, eta ni gogoratzen naiz gure aita oiartzuarra zan, eta umetan uda partean juten nintzala hara, Oiartzunea ta. Eta iraillean tortoilluen pasia izaten da. Oiartzunen ttorttola esaten dute, baiño hemen altzan tortoilluan. Eta gogoratzen naiz ba nola juten nintzan nere lehengusu batekin, oain dala gutxi hil zan, eta berarekin juten nintzan eta tortoilloak harrapatzen... Baiño bera, gauzak zer dian, halako batian hamalau-hamabost urte nituela, ba konturatu nintzen bizirik nahiago nituela txoriyak eta izadiya eta... Eta ekologista egin nintzen. Eta geroztik ba nahio det, oain ez litzaidake okurrituko, zea, txori bat garbitzia... Bueno, bueno, ezingo nuke. Ez txoririk, ez eulirik eta ez, ez, ez...

## 7. Ezkaluak harrapatzen; aingira, saltsan

- **Erref:** DON-130/009
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:18:18. **Bukatu:** 00:22:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

### Laburpena:

Ezkaluak nola harrapatu, eskuz. Botilan sartzen zituen gero, ondoren bainu-ontzira botatzeko. Amueder baserriko errekaetan sekulako aingira harrapatu zuen sardexkarekin. Martilun tabernako Juanitoren amak, Ixabelek, saltsa berdean prestatu zuen.

## 8. Erreklamoan txoritan

- **Erref:** DON-130/011
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:22:18. **Bukatu:** 00:24:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

### Laburpena:

Erreklamoan ere ibili izan zen. Gorosti adar batean biska jartzen zuten, eta ondoan kaiola jarri, txori kantari batekin. Kantuan hasten zenean, gorostira joaten ziren beste txoriak. Saldu egiten zituzten gero.

## 9. Altzako eskolan eta korazonistekin

- **Erref:** DON-130/013
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:26:06. **Bukatu:** 00:27:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>Altzako eskolan ibilia da, plazan. Sei urterekin hasi eta hamar urte arte. Maisuak: don Santiago, don Tomas, don Federico. Batxilergoa Donostian egin zuen, korazonistekin. Gero, ingeniaritza ikasi zuen. Venezuelan egon zen, gero irakasle hasi zen eta idazten.</p>

**10. Umetako jolasak; medikuaren semea**

- **Erref:** DON-130/015
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:28:07. **Bukatu:** 00:31:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak

**Laburpena:**

Umetako oroitzapenak. Heriotzari buruzko kontzientzia. Barandan zintzilik, jolasean. Frontoia. Sagarrak eta pikuk lapurtzen. Herriko medikuaren semea zen bera, eta eskolan ez zuten zigortzen.

**11. Abesti faxistak, eskolan; aita kartzelan, gerra garaian**

- **Erref:** DON-130/017
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:31:22. **Bukatu:** 00:35:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

<p><em>Cara al Sol</em> kantatzen zuten, eskolara sartu aurretik. Aita galtzaileen taldekoa izan zen gerran. Bi urte egin zituen kartzelan. Oiartzungo plazan harrapatu zuten, eta Ondarretara eramán. Fusilamenduak. Gaixo irten zen kartzelatik.</p>

**12. Medikuen bizimodua**

- **Erref:** DON-130/018
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:35:21. **Bukatu:** 00:38:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

**Laburpena:**

<p>Orduko medikuek ez zuen ordutegi finkorik. Etxera joaten zitzaizkion bila, gauez ere bai. Amak zapatak jartzen zizkion aurrean. Matxismoa. Susperregi baseritik joan ziren behin, Landabasotik, zaldiz. Errenteriako medikua ere izan zen.</p>

**13. Automobilik ez; errepidean futbolean jokatzeko**

- **Erref:** DON-130/019
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:38:54. **Bukatu:** 00:41:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuek
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

**Laburpena:**

<p>Oinez ibiltzen zen aita. Bi kamioneta zeuden herrian. Errepidean jokatzeko zuten futboleko. Automobilik ez zegoen. Bi zaldiko autoa erosi zuen gero aitak. Matrikula aipatzen du. Aurretik bizikletan ere ibili zen.</p>

**14. Botikarara Herrerara**

- **Erref:** DON-130/021
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:41:26. **Bukatu:** 00:42:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

**Laburpena:**

Altzan ez zegoen botikarik; Herrerara joaten ziren. 13 urte zituela aitarentzat sendagai bila joan zen ziztu bizian.

**15. Kilkerra txapel azpian**

- **Erref:** DON-130/022
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:42:58. **Bukatu:** 00:44:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Natura » Fauna

**Laburpena:**

Txapela erabiltzen zuen aitak; berak ekartzen zuen beti lehenengo kilkerra etxera. Kilkerra txapel azpian.

### Transkripzioa

- Txapela erabiltzen zun?

- Bai, bai, bai, burusoilla zan eta beti, beti txapela. Eta lehen kontatu dizut kilkirrena, eta beti berak ekartzen zuen lehenengo kilkerra. Juten zan tokatzen zitzaion baserrin batera jutea eta entzuten zuen lehenengo, zea, kilkirra udaberriyan, apirillean normalean, edo maiatzean; eta entzuten zuen, harrapatzen zuen eta txapelan sartzen zuen, buruan. Eta badakizu txapelek badutela ertz bat eta azkenian ba billatzen zuen kilkirrak beti ertz hori billatzen zuen goxo-goxo egoteko. Eta gero gure aita, hoi askotan ikusiya, aitaren irudia gure etxera sartzen bere txapelakin eta bere kilkirrakin, burutik "kri kri kri kri". Eta irripar zabala. Konturatu zen bere seme-alabetako bat gutxienez ba gauza hoiien zalea zala, kilkir zalea alegiya. Eta holako kontuak, oso irudi sinpatikoa aitarena.

## 16. Aita poeta, klasikoen zalea; mediku maitatua

- **Erref:** DON-130/024
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:45:07. **Bukatu:** 00:49:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

### Laburpena:

Aita poeta ere bazen. Espainiar klasikoak ondo ezagutzen zituen: Lope de Vega. Quevedo, Cervantes... Kixoteko esanak aipatzen zituen aitak. Literatur zaletasuna etxetik datorkio. Liburu asko zeuden etxean. Poesia idazten zuen. Estimatu zen Altzan, baina hanka ere sartuko zuen.

## 17. Aitaren poemak; euskararen egoera Altzan

- **Erref:** DON-130/026
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:49:40. **Bukatu:** 00:53:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Politika eta Franco

### Laburpena:

Aitak poematxo batzuk idatzi zituen, batzuek kartzelan. Sonetoak. Oso fededuna zen. Euskaraz ere egiten zituen olerkiak, ezkontzetan irakurtzeko. Giro euskaldunak San Isidro auzoa egin zuten arte iraun zuen. 400-500 izatetik 30.000 izatera igaro ziren. Euskara zapalduta. Transmisioaren etena.

## 18. Bere lehenengo idazlanak

- **Erref:** DON-130/027
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:53:55. **Bukatu:** 00:57:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

### Laburpena:

<p>11 urterekin idatzi zuen lehenengo poema, erdaraz. Kuarteta bat egiten saiatu zen. 14 urterekin, erromantze bat. 17 urterekin, berriz,<em> Oda a Euskal Herria;</em>, Ruben Dario imitatuz. Aberriaren kontzientzia.</p>

## 19. Euskararen kontzientzia; alfabetatzen

- **Erref:** DON-130/029
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:57:10. **Bukatu:** 00:58:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

### Laburpena:

<p>Euskararen kontzientzia 19-20 urterekin hartu zuen, eta euskaraz idazten hasi zen. Euskara batuaren sorrera. Bere kontura alfabetatu zen euskaraz. <em>Txillardegi</em>ren 'Sustrai bila' gramatika.</p>

## 20. Miranderen eta 'Txillardegi'ren nobelak

- **Erref:** DON-130/031
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:59:00. **Bukatu:** 01:01:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

### Laburpena:

<p>20 urte inguru zituela. Miranderen <em>Haur besoetakoa</em> eta <em>Txillardegi</em>ren <em>Leturiaren egunkari ezkutua</em> irakurtzeak idaztera animatu zuen. Irun Hiria saria irabazi zuen.</p>

## 21. Venezuelako egonaldia I: Amazoniako proiektua

- **Erref:** DON-130/032
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:01:47. **Bukatu:** 01:04:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kirola » Futbola

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena:**

Venezuela. Abentura zalea da umetatik. Karrera bukatu zuenean, Jose Mari Korta jesuitak Amazonian argia jartzeko proiektua aipatu zion. Sansen zebilen futboleant. Irakasle, Venezuelant.

## 22. Venezuelako egonaldia II: Caracasko gauak

- **Erref:** DON-130/033
- **Iraupena:** 0:05:08. **Hasi:** 01:04:56. **Bukatu:** 01:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena:**

Urtebete egin zuen Venezuelant. Caracasko Euskal etxean esan zioten gauez ez ateratzeko, baina ez zien jaramonik egin. Begiak ireki zitzaizkion. Putetxe batean emagaldu batek esan ziona. Gaurko munduari buruzko iritzia.

## 23. Hego Amerikako idazleen eragina

- **Erref:** DON-131/001
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Idaztea

**Laburpena:**

Antonio Perez Esclarin lagunarekin egon zen Venezuelant. Orduan, bi urte haietan, asko irakurtzeko aprobe txatu zuen: Vargas Llosa, García Marquez, Juan Rulfo ("Lautada sutan" eta "Pedro Paramo" liburuak)... Lehenengo idatzi zituen nobeletan irakurgai horien eragina izan zuen. Idatzi nahi duenari, irakurketa gidatuak egitea gomendatzen dio.

## 24. Astindari elkarteak

- **Erref:** DON-131/003
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:04:17. **Bukatu:** 00:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

**Laburpena:**

<p>Astindari elkarteak. Izenaren nondik norakoak. Euskara eskolak ematen zituzten gauez.</p>

## 25. Lehenengo manifestazioan, atxilotuta

- **Erref:** DON-131/004
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:05:29. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

### Laburpena:

Hamabost urterekin Pasaiara joan zen manifestazio batera ikaskide batekin, eta Guardia Zibilak harrapatu zituen. Ordukoa kontatzen du.

## 26. Zineman ikusitako lehenengo filmak

- **Erref:** DON-131/006
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:11:09. **Bukatu:** 00:14:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

### Laburpena:

Zinemara joaten ziren, Donostiara edo Trintxerpeko "La capilla"-ra. Gogoan ditu Groucho Marxen filmak, abenturazkoak, eta "Los diez mandamientos" eta "Ben-Hur".

## 27. Altza Donostia izatera pasa zenekoa

- **Erref:** DON-131/008
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:15:51. **Bukatu:** 00:17:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

### Laburpena:

Andaluziar bat alkate zela, bozketa egin zuten, Altza Donostiara pasatu edo ez erabakitzeke. Gehienek alde bozkatu zutela uste du, batek izan ezik.

## 28. Ama, ederra eta jakintsua

- **Erref:** DON-131/009
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:20:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Amari buruz berba egiten du. Emakume oso ederra zela eta etxea eramateko jakituria zeukala dio. Herriko jende xumea gustukoago du intelektual asko baino.

**29. Izebari egindako opariak**

- **Erref:** DON-131/011
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:21:29. **Bukatu:** 00:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Hamar urterekin, Elgoibarko jaietarako izebak bost duro eman zizkionean, izebari berari oparia erosi zionekoa kontatzen du. Promesa egin zion lehenengo dirutxoarekin urrezko katea erosiko ziola, eta hala egin zuen.

**30. Heriotzarekiko lehenengo gogoetak**

- **Erref:** DON-131/012
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:25:25. **Bukatu:** 00:27:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

**Laburpena:**

Zortzi urterekin lehenengoz heriotzarekin izandako harremana kontatzen du.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-05-17*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com